

Herrialde txostena: Errusia

basque
trade &
investment

2020ko iraila

- + Errusiako bulegoa
- + Adimen Lehiakorreko Unitatea




**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
2. BEGIRADA	5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	7
4.1. Abagune ekonomikoa	7
4.2. Balantza komertziala	8
4.3. Atzerriko inbertsioa	9
4.4. Enplegua	10
4.5. Perspektiba ekonomikoak	10
5. KANPO-MERKATARITZA	12
6. ALDEBIKO HARREMANAK	15
6.1. Euskadiren eta Errusiaren arteko merkataritza	15
6.2. Euskadiren posizionamendua	18
6.3. Aldebiko inbertsioak	20
7. SEKTORE NAGUSIAK	¡Error! Marcador no definido.
7.1. Ekarpena BPGari	21
7.2. Merkatuko bolumenak	¡Error! Marcador no definido.
7.3. Negozio-aukerak	¡Error! Marcador no definido.
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	¡Error! Marcador no definido.
8.1. Nazioarteko kidetasunak	26
8.2. Merkataritza-akordioak	¡Error! Marcador no definido.
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	¡Error! Marcador no definido.
10. ONDORIOA	¡Error! Marcador no definido.
11. ERREFERENTZIAK	¡Error! Marcador no definido.



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Pandemiaren aurreko hazkunde adierazleak	8
Tabla 2: Hazkunde adierazleak pandemia kontuan harturik	8
3. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak	9
4. taula: Errusiaranzko atzerriko zuzeneko inbertsioa	9
5. taula: Errusiako lan-merkatuko datu garrantzitsuenak	10
6. taula: Errusiak esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)	13
7 taula: Errusiak inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)	13
8. taula: Errusiak inportatutako produktu garrantzitsuenen xehetasunak (2018)	14
9. taula: Errusiak Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak, US \$ (2018)	14
10. taula: Errusiarekiko kanpo-merkataritza, milaka euro	15
11. taula: Euskaditik Errusiara esportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019).....	16
12 taula: Euskadik Errusiatik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)	16
13. taula: Euskaditik Errusiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka	17
14. taula: Espainia eta Euskaditik Errusiara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2015-2018 guztira)	18
15. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren rankinga hazkundearen arabera, 2002-2017	19
16. taula: Errusiako BPGaren banaketa sektoreka.....	21
17. taula: Balio erantsi gordina jarduera ekonomikoka	21
18. taula: Merkatuko bolumenak (milioi errublo, prezio arruntak).....	22
19. taula: COFACEren balorazioa	28

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Bi aldagaiantzat aurreikusitako bilakaera pandemiaren aurretik	11
2. grafikoa: Bi aldagaiantzat aurreikusitako bilakaera pandemiaren ondoren	11
3. grafikoa: Errusiako esportazioen jomuga garrantzitsuenak (2018)	12
4. grafikoa: Errusiako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2018).....	12
5. grafikoa: Errusiarekiko balantza komertziala	15
6. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%)	17
7. grafikoa: Euskadiren posizionamendua Errusian sektoreka.....	20
8. grafikoa: Errusiako BPGaren egitura produkzio-kontuen arabera 2014, 2017, 2018 (%)	22
9. grafikoa: Inportatzeko potentziala duten produktuak	24



➔ 1. DATU OROKORRAK



GOBERNUA

Federazioko presidentea: Vladimir Putin
Gobernuko presidentea: Mijail Mishustin
Gobernu mota: Errepublikar federal erdi-parlamentarioa



BIZTANLERIA

Guztira: 144,5 milioi
Hazkunde naturala: % -0,11
Hirietako biztanleria: % 74,4
Hizkuntza ofiziala: Errusiera¹
Negoioetarako hizkuntza: Errusiera, ingelesa
Hiriburua: Mosku (12 milioi biztanle)
Hiri garrantzitsuenak (biztanleria): San Petersburgo (5,1 milioi), Novosibirsk (1,5 milioi) Jekaterinburg (1,4 milioi), Nizhny Novgorod (1,2 milioi) Kazan (1,2 milioi), Txeliabinsk (1,1 milioi) Samara (1,1 milioi) eta Omsk (milioi 1 biztanle).



EKONOMIA

BPGa (2018, bilioi USD): 1.658
Manufakturako BPGa (%):BPGaren % 12,3
Per capita BPGa (PPP, 2018, USD): 11.705
BPGaren hazkundera (2019): 1,2%
Urteko inflazioa (2019): % 4,7
Enplegu-tasa (2019): % 59,8,
Langabezia-tasa (2020aren hasieran): % 4,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2018, mila milioi euro): 472
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2018, mila milioi euro): 316
Merkataritza (BPGaren % -a): % 51,5
Kanbio-tasa (2020ko otsaila): 1 euro = 73,60 errublo



BESTE BATZUK

GGI: 50/188
I+G-n eginiko gastua
BPGarekiko: % 1,11
 % 76,4

Iturriak: CIA, NDF, Munduko Bankua, WTO

¹ Errusia oso herrialde aberatsa da kulturaliki, horregatik, ofiziala den errusieraz gain (% 85,7), askoz ere hizkuntza gehiago ditu, hala nola, tataroa (% 3,2), txetxeniera (% 1) eta beste batzuk (% 10,1).



2. BEGIRADA

Errusia herrialde garrantzitsuen zerrendan dago Euskadiren eta bertako konpainia pribatuen nazioarteko posizionamendu-interesei dagokionez. 31 zonaldetan banatutako 48 herrialdek Euskadi eta BasqueTrade-rentzat izan lezaketen interesa neurtzen duen azterlanaren arabera, Errusia 21. postuan egongo litzateke, Poloniaren atzetik eta Turkiaren aurretik.

BasqueTrade agentziaren proiektuentzat duen interesari dagokionez, berriz, Errusiak puntuazio ona du, rankingeko 8. postuan dagoelarik. Sarpin komertzialaren rankingean, 23. postuan kokatzen da, eta euskal esportazioen zerrendan 17. postuan dago.

Aipatzekoa da bereziki interesgarria dela klusterrentzat, hain zuzen ere azterlaneko rankingean 14. postuan kokatzen baita, Italiaren atzetik eta Txinaren aurretik. Ez da berdin gertatzen ordea inbertsioak erakartzeko gaitasunarekin, hamar postu beherago baitago, 24. tokian.

Merkatuaren dinamismoari eta negozioak egiteko zailtasunari buruzko atalean, rankingeko 26. eta 20. postuetan dago, hurrenez hurren.

Merkatuaren tamaina neurtzeko, BPGa eta inportazioak hartzen dira oinarri. BPGaren rankingean, Errusia 13. postuan dago, Hego Korearen atzetik; eta inportazioen rankingean, 18. postuan, Txekia-Eslovakiaren atzetik.

Covid-19ak eragindako krisiari dagokionez, Errusian urtarrilaren amaiera aldera erregistratu ziren lehen kasuak, eta txosten hau idazten ari garenean (2020ko ekainaren 1a), 414.878 kasu positibo daude herrialde osoan. Gobernuak emandako datuen arabera, 4.855 pertsona hil ditu gaitzak.² Martxoaren 27an “lanik gabeko astea” hasi zen, gero “lanik gabeko hilabete” bihurtu zena, eta egun berean nazioarteko hegaldi guztiak bertan behera gelditu ziren, berraberriratzeko kasuak izan ezik.

Errusian, euste-neurriak eskualde bakoitzaren esku gelditu dira, eta Mosku izan da pandemiak gogorren jo duen lekua. Horren ondorioz, Moskuko alkateak itxialdia leuntzea erabaki du, baina ekainaren 14ra arte luzatuta. Aipatu behar da Putin presidenteak erabaki zuela Garaipenaren Eguneko desfile militarra ekainaren 24ra aldatzea, eta horrek erakusten du gaur egungo egoera hobea dela. Une honetan mugak oraindik itxita daude atzerritarrentzat baina ez merkataritzarentzat. Gobernuak hainbat neurri ekonomiko hartu ditu pandemiaren ondorioak arintzeko.

Bestalde, pandemiak petrolioaren krisi bat sortu du. Gehiegizko eskaintzak eta blokeoak eragindako eskariaren beherakadak elkarrekin bat egin dute bortizki kolpatzeko petrolio esportatzaileak. Eskaerak aurrekaririk gabeko gainbehera izan du, eta nazioarteko merkataria eta petrolio konpainiak gero eta kezkatuago daude, beldurrez ez dela beharbada erabat suspertuko sekula berriro. Apirilaren amaieran kalkulatu zen LPEEK adostutako murrizketa eta prezio baxuekin petrolio enpresen irabaziak 18-20 mila milioi dolar murriztuko zirela, eta horren ondorioz, 50 mila milioi dolar gutxiago bilduko zirela zergatan. Petrolioaren prezio baxuen eta itxialdiak eragindako galeren kolpe bikoitzak BPGa murriztuaraziko dute.³

² StopCoronavirus (2020): Datuak denbora errealean. <https://стопкоронавирус.рф>

³ The Diplomat (2020): Covid 19 A reckoning for Russia's Asian energy aims. <https://thediplomat.com/2020/05/covid-19-a-reckoning-for-russias-asian-energy-aims/>



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

2018ko martxoaren 18an Vladimir V. Putinek Presidentetzarako hauteskundeak irabazi zituen botoen % 76,6arekin, baina bere alderdiarekin (Errusia Batua) aurkeztu beharrean, hautagai independente gisa aurkeztu zen. Putinen laugarren agintaldia da. Hauteskundeetako parte-hartzea % 67,4koa izan zen, 2012ko hauteskundeetako baino handiagoa, eta Putinen aldeko botoa hazi egin zen hiri handietan.⁴

Parlamenturako hauteskunderi dagokienez, azkenak 2016ko irailean egin ziren, % 52ko abstentzioarekin. Hauteskundeetarako erabiltzen den sistema mistoa da: aurkezten diren zerrendek boto guztien % 5 lortu behar dute gutxienez, eta portzentajearen arabera ordezkari proportzionalarekin aukeratzen dira Dumako kideen erdiak (225); beste erdiak hautatzeko, itzuli bakarreko sistema bat erabiltzen da.⁵

Sistema judiziala Konstituzioak eta Lege Konstituzional Federalak ezartzen dute, eta erakunde hauek osatuta dago: Auzitegi Konstituzionala (19 epaile), Auzitegi Gorena eta Arbitrajeko Auzitegi Nagusia. Erakunde horietako kideak Federazioko Batzordeak izendatzen ditu Federazioko presidentek proposaturik. Auzitegi Gorenaren eskumenekoak dira kausa zibilak, penalak, administratiboak eta jurisdikzio orokorreko beste kausa batzuk. Arbitrajeko Auzitegi Nagusia arduratzen da auzi ekonomikoez. Epaileak independenteak dira eta goian esan diren arauen menpe baizik ez daude.⁶

Vladimir Putin presidentek adierazi zuen hainbat erreforma egingo zituela Konstituzioan, baina erreferendum bidez onartu behar dira oraindik. Batetik, aurreikusten da orain arte Presidentetzarenak ziren hainbat eskumen Lehen Ministroaren eta Parlamentuaren esku geldituko direla. Bestalde, erabaki horrek berehalako ondorioak izan ditu: Medvedev kabinetearen dimisioa eta gobernu berri baten eraketa. Kabinete berria 2020ko urtarrilaren 21ean hautatu zen, eta buruan du Mijaíl Mishustin, Zergen Zerbitzu Federaleko zuzendari ohia.⁷

2015-2016ko atzeraldiaz geroztik, gobernuak politika makroekonomiko zuhur bat garatu du egonkortasuna mantentzeko finantza arloan, eta banku zentralak kontu handiz kontrolatu du inflazioa. 2014tik 2019-2021ko aurrekontua da lehenengoa superabita aurreikusten zaiona, agintari jarraitu duten estrategia zuhurraren erakusgarri. Helburua da 200 mila milioi USD gordetzea etorkizunean etorriko diren zailtasunei aurre egiteko, aurrea hartzeko horrela zigor berriei edo beste krisi global bati, eta urte horietan 62 mila milioi USDeko superabita sortzeko. Errusiak erronka ugari ditu aurrean, eta horiei gehitu behar zaie orain koronabirusak eragindako pandemia globala ere, zeinaren ondorioz baliorik gabe gelditu baitira 2020rako egindako aurreikuspen ekonomiko guztiak.⁸

⁴ ICEX (2020): Errusia. Marko politikoa. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=RU>

⁵ *Ibid.*

⁶ *Ibid.*

⁷ EUROPAPRESS (2020). Auzitegi Konstituzionalak erreforma konstituzional bat onartu du Putinek agintean jarraitu dezan 2024tik aurrera. <https://www.europapress.es/internacional/noticia-constitucional-aprueba-reforma-constitucional-permitira-putin-siga-poder-despues-2024-20200316160733.html>

⁸ Santander Trade (2020). Errusia: politika eta ekonomia. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/rusia/politica-y-economia?accepter_cookies=oui



4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

Hainbat urtez hazkunde negatiboa izan ostean, Errusiako ekonomia berriro hasi da pixkanaka hazten 2017tik aurrera, baliabide mineralen erazketak eta kontsumo pribatuak bultzaturik. NDFk eginiko kalkuluen arabera, BPGaren hazkundera % 1,2ra murriztu zen 2019an (2018an % 2,3koa izan zen), petrolioaren prezioa jaitsi zelako eta BEZaren igoerak inpaktu negatiboa izan zuelako kontsumo pribatuan.⁹

Errusiako ekonomiak pixkanaka hazten jarraitu zuen 2019an ere, baina jarduera industrial moteldu egin zen, kanpo-eskaera txikiagoa izan zelako eta petrolioaren ekoizpena murriztu egin zelako LPEEK eta petrolioia esportatzen duten herrialdeek finkatutako kuotak bete beharrez. Gainera, finantzaketa kostuak ere handitu egin ziren, neurri batean Estatu Batuek 2018an ezarritako zigorren ondorioz. 2015-2016ko atzeraldiaz geroztik, gobernuak politika makroekonomiko zuhur bat aplikatu du egonkortasuna mantentzeko finantza arloan, eta banku zentralak kontu handiz kontrolatu du inflazioa. Nahiz eta finantza publikoek beherakada bat jasan zuten 2018ko datuekin alderatuta, superabita izan zuten 2019an (NDFren arabera, aurrekontuaren superabita BPGaren % 1ekoa izan zen). Zor publikoa handitu egin da (baina baxua da oraindik, 2019an BPGaren % 16,5ekoa izan zen), atzeraldi sasoiaren funts subiranora jo behar izan zelako. Inflazioa, 2018an % 2,9koa zena, % 4,7ra igo zen 2019an, urte horretan ezarritako BEZaren igoera islatuz. 2018ko maiatzeko dekretu batean, Vladimir Putin presidenteak konpromisoa hartu zuen azpiegitura, osasun eta hezkuntza arloetako gastua BPGaren % 1,1 handitzeko 2021ean. 2014tik 2019-2021ko aurrekontua da lehenengoa superabita aurreikusten zaiona, agintariek jarraitu duten estrategia zuhurraren erakusgarri. Helburua da 200 mila milioi USD gordetzea etorkizunean etorriko diren zailtasunei aurre egiteko, aurrea hartzeko horrela zigor berriei edo beste krisi global bati, eta urte horietan 62 mila milioi USDeko superabita sortzeko.¹⁰

Aurreikuspenak guztiz aldatu dira Covid-19aren mundu mailako pandemiaren ondorioz. Ekonomi Garapen Ministerioaren iragarpenek diote Errusiako ekonomiaren susperraldia motela izango dela. Ministerioak aurrekontuen makro-aurreikuspen bat argitaratu du 2020-2023 urteetarako, zeinak kontuan hartzen baitu koronabirusaren ondoriozko "lanik gabeko apirila", eta ekonomiaren susperraldiari buruzko kalkulu bat ere egiten du. Datu horien arabera, atzeraldia ez da izango hain sakona, baina susperraldia motela izango da. Bigarren hiruhilekoan BPGaren beherakada ez da izango % 9,5 baino handiagoa, eta urtearen amaieran % 5ekoa izango da. Hala, ekonomiaren susperraldia 2020ko laugarren hiruhilekoan hasiko da, eta 2022aren lehen erdian iritsiko da krisiaren aurreko mailara. BPGaren hazkundera % 2,8koa izango da 2021ean, % 3koa 2022an eta % 3,1ekoa 2023an.¹¹

Ministerioak eginiko aurreikuspen horien arabera, inflazioa % 4an mantenduko da, hau da, xedetzat hartzen den mailan, eta biztanleriaren diru-sarrerara errealak % 6 murriztuko dira bigarren hiruhilekoan; aurtengo emaitzei jarraituz, % 3,8 jaitsiko dira eta ez dira berreskuratuko hurrengo urtean (+% 2.8). 2020an soldatak % 3,9 murriztuko dira, eta 2021ean % 3,1eko hazkundera izango dute, baina hortik aurrera urtean % 2,5 haziko dira gehienez. Langabeziari dagokionez, 1,1 milioi pertsona gehiago geldituko dira lanik gabe, eta ez da iritsiko krisiaren aurreko mailara (4,6 milioi pertsona) 2023ra arte.¹²

Ekonomi Garapen Ministerioaren aurreikuspenak oso baikorrak dira soldatei eta enpleguari dagokienez; ziurrenik, Ministerioak espero du enpleguen "derrigorrezko" mantentzeak eta soldatetarako maileguek euren helburua lortuko dutela. "Vedomosti" egunkariaren arabera, aurreikuspen horiek bat datoz adituek eginiko beste iragarpen ofizial batzuekin.¹³

⁹ *Ibid.*

¹⁰ ICEX (2019). Txosten ekonomiko eta komertziala. Errusia.

¹¹ Vedomosti. (2020) Munduko ekonomia azkar suspertuko da, baina susperraldi hori ez da berdina izango herrialde batzuetan eta besteetan. <https://www.vedomosti.ru/economics/articles/2020/05/13/830185-vosstanovlenie-ekonomiki>

¹² *Ibid.*

¹³ *Ibid.*



1. taula: Pandemiaren aurreko hazkunde adierazleak¹⁴

Hazkunde adierazleak	2017	2018	2019 (e)	2020 (e)	2021 (e)
BPGa (mila milioi USD)	1.579,29e	1.657,29e	1.637,89	1.657,54	1.714,31
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	1,6e	2,3e	1,1	1,9	2,0
Per capita BPGa	10.751e	11.289e	11.163	11.305	11.705
Inflazio-tasa	3,7	2,9e	4,7	3,5	3,9
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	5,2	4,8e	4,6	4,8	4,7

Iturria: NDF – World Economic Outlook Database; eskuragarri dauden azken datuak.

Oharra: (e) Datu estimatuak

Tabla 2: Hazkunde adierazleak pandemia kontuan harturik¹⁵

Hazkunde adierazleak	2019	2020	2021	2022	2023
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	1,3	-5	2,8	3	3,1
Inflazio-tasa	3	4	4	4	4
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	4,6	5,7	5,4	4,9	4,7

Iturria: Ekonomi Garapen Ministerioa

4.2. Balantza komertziala

Bere legeria zorrotza eta muga-zergen inguruko politikak gorabehera, Errusia oso irekita dago kanpo-merkataritzara, BPGaren % 51,5a hartzen duen (Munduko Bankua, 2018). Errusia MMEko kide da 2012tik, Estatu Independenteen Komunitatearen barruan dago, zeinak merkataritzaren libreko gune bat sortu baitzuen, eta Eurasiako Aduana Batasuneko kide ere bada. Errusia munduko 14. ondasun-esportatzailea da eta 22. postuan dago ondasun-inportatzaileen artean (MME, 2018). Hauek dira gehien esportatzen dituen produktuak: hidrokarburoak (esportazio guztien % 50 baino gehiago), erregai solidoak, burdina eta altzairua, garia eta gari nahasia, bitxiak, metal preziatuak eta zura. Bestalde, hauek dira gehien inportatzen dituenak: makineria, produktu farmazeutikoak, ekipamendu elektronikoa, ibilgailuak eta plastikoak.¹⁶

Errusiak soberakin komertzial handia eta erregularra izan du 1998tik, batik bat bere aberastasun naturalagatik eta, gehienbat, hidrokarburoengatik (petrolio gordina eta gas naturala). Soberakin komertzialak aise konpentsatzen du zerbitzuen eta diru-sarreraren defizita. Lehengaien prezioei gertatu bezala, soberakin komertziala uzkuritu egin zen Europa eta Estatu Batuekiko tentsio politikoen ondorioz, baina berriro hazi zen lehengaien prezioen susperraldiari esker. Halere, 2019an superabita murriztu egin zen, esportazioak gutxitu egin zirelako eta inportazioak, aldiz, ugartu. Zigorren ostean hainbat ahalegin egin badira ere, barne-produktuak inportazioekin ordezkatzeko politikak ez ditu lortu bere helburuak, nekazaritza sektorean izan ezik.¹⁷

¹⁴ FMI (2019). World Economic and Financial Surveys. World Economic Outlook Database <https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2019/01/weodata/index.aspx>

¹⁵ Errusiako Federazioko Ekonomi Garapen Ministerioa (2020). <https://economy.gov.ru/>

¹⁶ SANTANDER TRADE (2020): Errusiako kanpo-merkataritzaren zifrak. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/rusia/cifras-comercio-exterior?accepter_cookies=oui

¹⁷ *Ibid.*



3. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak ¹⁸

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	308.027	194.087	191.406	238.384	248.704
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	497.764	340.349	281.825	353.104	443.129
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	118.909	86.868	74.379	87.400	93.342
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	64.818	50.984	50.504	56.847	63.836
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (urteko hazkundera % -tan)	-7,3	-25,1	-3,6	17,4	2,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (urteko hazkundera % -tan)	0,5	3,7	3,2	5,0	5,5
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)	20,7	20,6	20,6	20,7	20,8
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)	27,1	28,7	25,7	26,1	30,7
Balantza komertziala (milioi USD)	188.931	148.398	90.215	114.719	194.429
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	133.653	111.246	66.256	83.486	164.490
Kanpo-merkataritza (BPGaren %)	47,8	49,4	46,3	46,8	51,5

Iturria: Munduko Bankua

4.3. Atzerriko inbertsioa

Errusiaranzko AIZren fluxuak murrizten ari dira 2013tik. Sarrera-fluxuak 37.200 milioi USDkoak izan ziren 2016an, baina 2017an 26 mila milioi USDera jaitsi ziren, eta 2018an 13.300 milioi USDera kokatu ziren. 2019aren lehen erdian, AIZren sarrera-fluxuak % 12 handitu ziren 2018ko lehen erdiarekin alderatuta, 16 mila milioi USDera iritsiz. Mugaz gaindiko bat-egite eta erosketa-operazioen balioa handitu egin zen, baliabide mineralen eta Interneteko industrien transakzio handiei esker. Hauek dira Errusian gehien inbertitzen duten herrialdeak: Txipre, Herbehereak, Luxenburgo, Bahamak, Irlanda, Bermudak eta Erresuma Batua. Atzerriko inbertsioa sektore hauetara bideratzen da nagusiki: meatzaritza eta erauzketa, metalurgia, finantza eta aseguru jarduerak, jarduera administratiboak eta zerbitzuak, ibilgailuen fabrikazioa eta garraio eta energia sektoreetako ekipamenduak.¹⁹

AIZ-k BPGari egiten dion ekarpena nahiko baxua da oraindik herrialdearen hazkunderarekin eta bere potentzial ekonomikoarekin alderatzen bada, eta AIZ horren zati handi bat maniobra-funtsak dira. Nazioarteko Finantza Institutuaren arabera, Errusia 23 ekonomia gorakorren artean dago AIZ "errealari" dagokionez, 2015-2018 aldian batez beste BPGaren % 0,2 ordezkatzen duten fluxu garbiekin. Munduko Bankuaren 2020ko Doing Business txostenaren arabera, Errusia 28. postuan dago 190 herrialdeko zerrendan (aurreko urtean baino 3 postu gorago). Errusiaren indargune garrantzitsuenak dira bere baliabide natural oparoak (petrolio, gasa eta metalak) eta bere lan-esku ugari eta prestatua.²⁰

4. taula: Errusiaranzko atzerriko zuzeneko inbertsioa²¹

Adierazlea	2016	2017	2018
AIZ (milioi USD)	37.176	25.954	13.332
AIZren stock-a (milioi USD)	393.910	441.123	407.362
Greenfield inbertsio kopurua	280	279	325
AIZren fluxua guztizko inbertsioarekiko	13,9	n/a	n/a
AIZren stock-a (BPGaren %)	29,6	n/a	n/a

Iturria: UNCTAD

¹⁸ Munduko Bankua (2020): Errusiako Federazioa. <https://data.worldbank.org/country/russian-federation>

¹⁹ Santander Trade (2020): Errusia, Atzerriko Inbertsioa. <https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/rusia/inversion-extranjera>

²⁰ *Ibid.*

²¹ UNCTAD (2019): World Investment Report. https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf



4.4. Enplegua

Errusiako lan-merkatuak oso langabezia-tasa txikia du. Enpleguaren portzentaje handi bat industria eta zerbitzu sektoreetan zentratzen da.

5. taula: Errusiako lan-merkatuko datu garrantzitsuenak²²

Adierazlea	2019
Enplegua guztira (milioiak)	72,7
ENPLEGUA SEKTOREKA	
-Lehen sektorea (%)	5,77
-Industria sektorea (%)	22,93
-Zerbitzuen sektorea (%)	67,3
Langabezia-tasa (%)	4,7

Iturria: Munduko Bankua

Aro sobietarreko lan-egitura (hots, denbora luzez enpresa berean lan egitea) iraganeko kontua da dagoeneko. Orain, Errusiako lan-mugikortasuna Europakoa baino handiagoa da. Langabezia-maila baxuari dagokionez, lan babeserako legeriak ez die uzten enplegatzaileei enplegatua arrazoirik gabe kaleratzen, baina posible dute soldatak murriztea, eta horixe egiten dute premia dutenean. Hala, aldaketa ekonomikoek ez dute eraginik enplegatu kopuruan, baina soldatak asko aldatzen dira.

4.5. Perspektiba ekonomikoak

Pandemiaren aurretik, Errusiako ekonomiaren bilakaerari buruzko aurreikuspenek zioten BPGak hazkunde oso moderatua izango zuela, eta prezioak apur bat gehiago igoko zirela. Izan ere, NDFren arabera, BPGa % 0,5 inguru haziko zen batez beste termino errealetan, eta inflazioa % 4 ingurukoa izango zen.²³

Ekonomi Garapen Ministerioaren arabera, ekonomiaren susperraldia motela izango da, eta 2022aren lehen erdian iritsiko da krisiaren aurreko mailara, BPGa % 3 inguru haziko delarik 2021etik aurrera. Inflazioa esperotako mailan mantenduko da, % 4 inguruan.²⁴


²² Munduko Bankua (2020): Errusiako Federazioa. <https://data.worldbank.org/country/russian-federation>

²³ NDF (2019). World Economic and Financial Surveys. World Economic Outlook Database <https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2019/01/weodata/index.aspx>

²⁴ Errusiako Federazioko Ekonomi Garapen Ministerioa (2020). <https://economy.gov.ru/>




1. grafikoa: Bi aldagaientzat aurreikusitako bilakaera pandemiaren aurretik²⁵



Iturria: NDF

2019an, Ekonomi Garapen Ministerioak urteko batez besteko % 4ko inflazioa aurreikusi zuen, Errusiaren 2036ra arteko garapen sozioekonomikoaren oinarritzko agertokian. Horixe baieztatzen da Errusiako Federazioko Ekonomi Garapen Ministerioak 2036ra arteko urteei buruz eginiko garapen sozioekonomikoaren aurreikuspenaren oinarritzko bertsioan. Ekonomi Garapen Ministerioaren iragarpenean adierazi bezala, aurreikuspen kontserbadore bat eginaz, inflazioa % 3,6koa izango da batez beste 2020an, eta % -4koa 2021etik 2036ra. Pandemia iritsi aurretik, Maxim Oreshkin ministroak jakinarazi zuen Ekonomi Garapen Ministerioak espero zuela 2024tik aurrera BPGaren hazkunde-tasa % 3tik gorakoa izango zela. Ekonomi Garapen Ministerioak garapen sozioekonomikoari buruz eginiko aurreikuspenak zioen Errusiako BPGak % 1,8ko hazkundea izango zuela 2018an, % 1,3koa 2019an eta % 2koa 2020an. Aurrera begira, 2021eko adierazlea % 3,1 inguruan kokatzen da, 2022koa % -3,2an, eta 2023-2024koak % -3,3an.²⁶

2. grafikoa: Bi aldagaientzat aurreikusitako bilakaera pandemiaren ondoren²⁷



Iturria: Errusiako Federazioko Ekonomi Garapen Ministerioa.

²⁵NDF (2019). World Economic and Financial Surveys. World Economic Outlook Database <https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2019/01/weodata/index.aspx>

²⁶ Errusiako Federazioko Ekonomi Garapen Ministerioa (2020). <https://economy.gov.ru/>


²⁷ Ibid.



➔ 5. KANPO-MERKATARITZA


Hauek dira Errusiako kanpo-merkatutzaren jomuga eta jatorri herrialdeak. European lehen postuetan daude Herbehereak, Alemania, Polonia eta Italia. Aipatzekoa da Espainia 39.a dela Errusiaren hornitzaileen artean (2018).

3. grafikoa: Errusiako esportazioen jomuga garrantzitsuenak (2018)²⁸



Iturria: Comtrade

4. grafikoa: Errusiako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2018)²⁹



Iturria: COMTRADE

²⁸ COMTRADE DATABASE (2020): Russia: imports and exports. <https://comtrade.un.org/data/>

²⁹ Ibid.



6. taula: Errusiak esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)

Kodea	Produktuaren azalpena	2018an esportatutako balioa (\$)	%
'GUZTIRA	Produktu guztiak	449.347.157	100
27	Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak, material bituminosoak...	237.591.878	52,87
99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materialak	63.746.027	14,19
72	Galdaketa, burdina eta altzairua	23.357.805	5,2
10	Zerealak	10.457.675	2,33
71	Perla finak (naturalak edo hazkuntzakoak), harribitxiak edo harri erdibitxiak, metal preziatuak...	10.097.534	2,25
84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, errektore nuklearrak, galdarak eta makina horien zatiak...	9.170.893	2,04
44	Zura, landare-ikatzia eta zurezko manufakturak	9.009.169	2
31	Ongarriak	8.225.604	1,83
76	Aluminioa eta bere manufakturak	6.555.519	1,46
74	Kobrea eta bere manufakturak	5.372.205	1,2
85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduzio-gailuak...	4.911.607	1,09
03	Arrainak eta krustazeoak, moluskuak eta uretako gainerako ornogabeak	4.282.356	0,95
29	Produktu kimiko organikoak	4.199.559	0,93
73	Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak	4.075.683	0,91
26	Metal metaliferoak, zepa eta errautsak	3.672.883	0,82

Iturria: COMTRADE, Classification by HS

7 taula: Errusiak inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018) ³⁰

Kodea	Produktuaren azalpena	2018an inportatutako balioa (\$)	%
'GUZTIRA	Produktu guztiak	238.151.375	100
A			
'84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, errektore nuklearrak, galdarak eta makina horien zatiak...	43.601.102	18,31
'85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduzio-gailuak...	29.911.923	12,56
'87	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	23.623.419	9,92
'30	Produktu farmazeutikoak	10.582.372	4,44
'39	Plastikoa eta bere manufakturak	9.763.106	4,1
'99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materialak	7.053.690	2,96
'90	Optika, argazkigintza edo zinematografia, neurketa, kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak...	6.747.431	2,83
'73	Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak	5.806.474	2,44
'72	Galdaketa, burdina eta altzairua	5.286.728	2,22
'08	Frutak eta fruitu jangarriak; produktu mikatzen (zitrikoak) azalak, meloiak eta sandiak	5.076.953	2,13
'29	Produktu kimiko organikoak	4.104.333	1,72
'40	Kautxua eta bere manufakturak	3.873.389	1,63
'28	Produktu kimiko inorganikoak; metal preziatuen, elementu erradiaktiboen... konposatu inorganiko edo organikoak	3.810.320	1,6
'62	Arropak eta janzteko osagarriak (puntuakoak izan ezik)	3.706.899	1,56
'64	Oinetakoak, polainak eta antzeko artikulua, eta artikulua horien zatiak	3.430.479	1,44

³⁰ Ibid.



Iturria: COMTRADE, Classification by HS

Errusiak Europako herrialdeetatik egiten dituen inportazioak aztertzeke orduan, interesgarria da azterketa hori egitea kategoria ekonomiko handien arabera ("Broad Economic Categories" Comtrade-n).

8. taula: Errusiak inportatutako produktu garrantzitsuenen xehetasunak (2018) ³¹

Produktuak	(Milioi dolar)
4 Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik) eta horien zati eta osagarriak	70.538
2 Beste partida batean zehaztu gabeko oinarritzko hornidura industrialak	62.707
22 Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrial elaboratuak	57.387
41 Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik)	62.707
5 Garraioko ekipoak, eta horien osagarrien zatiak	38.822
6 Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumo-ondasunak	37.202
1 Elikagaiak eta edariak	26.055
53 Garraioko ekipoen piezak eta osagarriak	19.500
42 Kapital-ondasunen zati eta osagarriak (garraioko ekipoak izan ezik)	17.907
63 Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua iragankorrak	16.263
12 Elikagai eta edari elaboratuak	15.357
62 Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua erdi-iraunkorrak	14.328
122 Batik bat etxean kontsumitzeko elikagai eta edari prozesatuak	12.612
52 Garraioko ekipoak eta horien zati eta osagarriak, beste batzuk	12.121
521 Garraioko ekipoak, beste batzuk, industrialak	11.667

Iturria: COMTRADE, BEC Classification by Broad Economic Categories (BEC)

Euskadik Errusian duen sarpin komertziala aztertzeke, hona hemen Europako 5 bazkide garrantzitsuenei eginiko erosketak sektoreka. Ikusten da, batik bat, erdi-manufakturak inportatzen direla, eta haien atzetik garraiorako elementuak eta kontsumo-ondasunak, besteak beste.

9. taula: Errusiak Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak, US \$ (2018) ³²

	GUZTIRA	ALEMANIA	ITALIA	FRANTZIA	ESPAINIA	ERRESUMA BATUA
GUZTIRA	53.293.714.121	25.641.811.160	10.596.883.895	9.603.863.208	3.773.025.516	3.678.130.342
2 Erdi-manufakturak	13.450.108.676	7.014.932.738	2.431.980.615	2.008.290.037	984.389.247	1.010.516.039
5 Garraioko elementuak	10.136.099.248	5.010.085.698	587.553.642	2.948.456.170	967.255.487	622.748.251
6 Kontsumo-ondasunak	9.332.984.095	3.142.005.528	2.764.787.035	2.133.915.300	641.280.845	650.995.387
4 Kapital-ondasunak	16.278.003.318	9.071.345.335	3.915.670.535	1.647.982.387	660.312.460	982.692.601
1 Elikagaiak eta edariak	3.320.959.839	1.015.203.501	829.846.428	635.146.649	470.923.647	369.839.614
3 Energia	383.882.078	241.405.545	28.684.183	71.705.455	14.682.105	27.404.790
7 Beste ondasun batzuk	233.309.657	146.832.815	38.361.457	158.367.210	34.181.725	13.933.660

Iturria: Comtrade, BEC Classification by Broad Economic Categories.

³¹ Ibid.

³² Ibid.



➔ 6. ALDEBIKO HARREMANAK

6.1. Euskadiren eta Errusiaren arteko merkataritza

10. taula: Errusiarekiko kanpo-merkataritza, milaka euro³³³⁴


	2014	2015	2016	2017	2018	2019*	% 18/17	% 19/18*
Esportazioak	192.647	168.858	191.512	236.050	251.249	291.802	% 6,4	% 16,1
Inportazioak	1.599.993	844.354	1.129.323	632.958	389.269	1.142.954	% -38,5	% 193,6
Balantza komertziala	-1.407.346	-675.496	-937.908	-396.908	--138020	-851.152		

*Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat

Errusia Euskadiren 18. bazkide komertziala izan zen 2018an, eta aldebioko merkataritza 640 milioira iritsi zen. Euskaditik Errusiarako esportazioak zertxobait murriztu dira 2015era arte. 2016an berriz ere hazten hasi ziren, eta joera hori mantendu egin da 2019ra arte. Errusiarekiko balantza komertziala beti izan da defizitarioa Euskadirentzat.

5. grafikoa: Errusiarekiko balantza komertziala³⁵



Iturria: Datacomex

Alde batera utzita petroliotik eratorritako produktuen merkataritza, balantza komertziala positiboa izan da Euskadirentzat 2016tik aurrera.

³³ EUSTAT (2020): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomi Erkidegotik eginko esportazioen rankinga herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tb10005722_c.html

³⁴ *Ibid.*

³⁵ DATACOMEX (2020): Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak. http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx



11. taula: Euskaditik Errusiara esportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019)³⁶

	2019 (behin-behinekoa)	%
Guztira	291.529	% 100
87 Automobilak; traktoreak	116.088	% 39,82
84 Makinak eta gailu mekanikoak	51.892	% 17,80
40 Kautxua eta bere manufakturak	50.782	% 17,42
73 Galdaketako manufakturak, burdina/altzairua	21.324	% 7,31
82 Metalezko tresna eta aiztoak	10.714	% 3,68
38 Beste produktu kimiko batzuk	6.499	% 2,23
85 Gailu eta material elektrikoak	4.011	% 1,38
39 Material plastikoak eta beren manufakturak	3.569	% 1,22
86 Burdinbideetako ibilgailuak eta materiala	3.018	% 1,04
83 Metal desberdinen manufakturak	2.392	% 0,82

Iturria: Datacomex

12 taula: Euskadik Errusiatik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)³⁷

	2019 (behin-behinekoa)	%
Guztira	1.142.954	% 100
27 Erregaiak, olio mineralak	1.002.422	% 87,70
72 Burdinurtua, burdina eta altzairua	42.356	% 3,71
40 Kautxua eta bere manufakturak	27.682	% 2,42
76 Aluminioa eta bere manufakturak	25.250	% 2,21
28 Produktu kimiko inorganikoak	11.127	% 0,97
81 Beste metal arrunt batzuk, cermet-ak	7.260	% 0,64
44 Zura eta bere manufakturak	6.172	% 0,54
29 Produktu kimiko organikoak	3.913	% 0,34
31 Ongarriak	3.655	% 0,32
80 Eztainua eta bere manufakturak	3.155	% 0,28

Iturria: Datacomex

Interesgarria da Errusiako inportazioetan eta Espainiatik Errusiara eginiko esportazioetan dugun pisua aztertzea, jakiteko lehiakorrak ote garen termino erlatiboetan. Aurreko kapituluan ikusi dugu aztertutako 30 eremuak (47 herrialde) kontuan harturik, Errusian dugun sarpen komertziala ez dela beste herrialde batzuetakoa bezain bestekoa; termino erlatiboetan, 23. postuan zegoen 2017an.


Grafiko honetan ikusten da Espainiatik Errusiarako esportazioetan dugun pisua esportazio guztietan duguna baino txikiagoa izan zela 2002tik 2014ra; urte horretan portzentajea hazten hasi zen, guztizko esportazioetan dugun pisuarena gainditu arte.

³⁶ Ibid.

³⁷ Ibid.



6. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%)³⁸



Iturria: Datacomex

Hona hemen 2018ra arteko banaketa sektoriala. Ikusten da epealdi horretan Espainiako esportazioen % 12,3 ordezkatu genuela, batik bat automozio sektorean (% 51,1), ekipo-ondasunen sektorean (% 19,4) eta erdi-manufakturetan (% 11,2). Horrek erakusten du sarpen maila handia dela, batez ere kontuan hartzen badugu Espainiako guztizkoarekin alderatuta segmentu horretan dugun pisua askoz txikiagoa dela (% 19,2). Baita erdi-manufakturetan ere (% 11,2), kapitulu horretan dugun pisua % 10,3koa baita. Beraz, esan liteke gure sektore industrialia Espainia osokoa baino gehiago zuzentzen dela Errusiara.

13. taula: Euskaditik Errusiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka³⁹

	GUZTIRA 15-19	2015	2016	2017	2018	2019
Euskadiren pisua guztizkoan (%)	% 12,3	% 10,1	% 12,0	% 12,3	% 12,4	% 14,2
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	% 1,6	% 0,3	% 1,3	% 3,2	% 1,9	% 1,2
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	% 0,1	% 0,0	% 0,0	% 0,3	% 0,0	% 0,0
3 LEHENGAIK	% 2,2	% 0,1	% 1,8	% 4,3	% 2,6	% 1,7
4 ERDI-MANUFAKTURAK	% 11,2	% 9,3	% 10,4	% 10,3	% 11,2	% 14,6
5 EKIPO-ONDASUNAK	% 19,4	% 20,8	% 19,6	% 17,5	% 18,9	% 20,2
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	% 51,1	% 39,3	% 49,8	% 46,9	% 48,7	% 68,4
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	% 3,4	% 1,0	% 6,7	% 8,0	% 0,8	% 1,1
8 KONTSUMOKO MANUFAKTURAK	% 0,9	% 1,1	% 1,2	% 0,7	% 0,5	% 0,8
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	% 0,2	% 0,2	% 0,2	% 0,4	% 0,2	% 0,2

Iturria: Datacomex

³⁸ Ibid.

³⁹ Ibid.



14. taula: Espainia eta Euskaditik Errusiarara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2015-2018 guztira)⁴⁰

	Espainia (Uni: mila €)		EAE (Uni: mila €)
Aukeratutako guztizkoa	7.208.219	Aukeratutako guztizkoa	847.668
4 ERDI-MANUFATURAK	2.311.316	6 AUTOMOBIL SEKTOREA	301.012
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	1.548.659	5 EKIPO-ONDASUNAK	268.655
5 EKIPO-ONDASUNAK	1.401.548	4 ERDI-MANUFATURAK	238.503
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	995.909	1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	17.008
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	641.715	8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	13.328
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	185.256	7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	7.496
3 LEHENGAIK	64.545	3 LEHENGAIK	1.540
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	48.585	9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	113
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	10.681	2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	10

Iturria: Datacomex

Azkenik, CIVEXek emandako datuen arabera, 105 euskal enpresak esportatzen dute Errusiarara.⁴¹

6.2. Euskadiren posizionamendua

Interesgarria da aztertzea zein den Errusiako inportazioetan daukagun posizionamendua, jakiteko lehiakorrak garen termino erlatiboetan.

Aurreko kapituluan ikusi dugu aztertutako 31 eremuak (48 herrialde) kontuan hartuta, Errusian dugun sarpen komertziala ez dela beste herrialde batzuetakoa bezain bestekoa, eta termino erlatiboetan, 23. postuan zegoela 2017an. Orobat ikusi dugu Espainiatik Errusiarako esportazioetan dugun pisua esportazio guztietan duguna baino txikiagoa izan zela 2004-2014 urteen artean, baina portzentaje hori pixkanaka handitzen joan dela 2019ra arte.

Hona hemen 2017an (eskuragarri dauden azken datuak urte horretakoak dira) Errusiako inportazioen gaineko sektorekako euskal kuota eta azken bost urteetan izan duen bilakaera. Soilik bi urte hartzen baditugu joerak interpretatzeko (kasu honetan, 2012 eta 2017), hauxe ikusten da: Euskadiren Errusiako kuota baxua da 2017an eta azken 5 urteetan aztertu diren sektore guztietan.

⁴⁰ *Ibid.*

⁴¹ CIVEX (2020): Errusiarara esportatzen duten enpresak. https://www.industria.ejgv.euskadi.eus/x76aAppWar/buscador_avanzado/submit



15. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren rankinga hazkundearen arabera, 2002-2017

Tabla -28- Rusia. Ranking de cuota por sector en 2017 y ranking de evolución de cuotas según crecimiento 2012-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
93 Armas y municiones	2,14%	93 Armas y municiones	-6,82%	1,63%
87A Vehículos automóviles	1,54%	86 Vehículos de vías férreas	1,43%	1,43%
86 Vehículos de vías férreas	1,43%	87A Vehículos automóviles	1,41%	1,28%
40 Caucho y manufacturas	1,16%	73A Tubos y accesorios	0,41%	0,65%
73A Tubos y accesorios	0,73%	40 Caucho y manufacturas	0,85%	0,61%
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	0,58%	73B Depósitos, recipientes	0,29%	0,35%
73B Depósitos, recipientes	0,37%	76 Aluminio y manufacturas	0,21%	0,15%
83 Manufacturas metálicas	0,25%	16-24 (-22) Productos alimenticios	0,11%	0,12%
76 Aluminio y manufacturas	0,21%	84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	-0,04%	0,06%
84E Equipamiento hostelería y aparatos doméstico	0,16%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,13%	0,03%
84D Grúas y aparatos elevación	0,15%	28-38 Productos químicos	0,03%	0,03%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,13%	22 Bebidas	-0,01%	0,02%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,12%	25-27 Productos minerales	0,02%	0,02%
84F Otra maquinaria mecánica	0,07%	44-46 Madera y sus manufacturas	-0,08%	0,02%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,07%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,03%	0,02%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,06%	87C Partes y accesorios	-0,08%	0,01%
85B Transformadores	0,05%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,00%	0,01%
85A Motores y generadores eléctricos	0,05%	41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,01%	0,01%
87C Partes y accesorios	0,05%	84F Otra maquinaria mecánica	-0,01%	0,00%
28-38 Productos químicos	0,04%	71 Joyería y bisutería	0,00%	0,00%
82 Herramientas y útiles	0,04%	74 Cobre y sus manufacturas	-0,02%	0,00%
87B Vehículos para transporte mercancías	0,04%	88 Navegación aérea o espacial	0,00%	0,00%
22 Bebidas	0,04%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	0,00%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,04%	97 XXI Objetos de arte	0,00%	0,00%
87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,04%	6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	0,00%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,03%	84A Calderas y turbinas	0,00%	0,00%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,03%	15 Grasas y aceites	0,00%	0,00%
39 Materias plásticas	0,03%	1 a 5 Productos del reino animal	0,00%	0,00%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,02%	89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	0,00%
25-27 Productos minerales	0,02%	87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,03%	0,00%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,02%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	-0,08%	0,00%
85C Baterías, acumuladores, electroimanés	0,01%	85D Alumbrado	0,00%	-0,01%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	0,01%	72E Otros de fundición hierro y acero	0,00%	-0,01%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,01%	85C Baterías, acumuladores, electroimanés	0,01%	-0,01%
41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,01%	72A Productos planos acero común	0,00%	-0,01%
84B Motores	0,01%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	-0,03%	-0,02%
99 No clasificados	0,00%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	-0,02%	-0,02%
71 Joyería y bisutería	0,00%	94-96 Muebles, juguetes, otras	-0,41%	-0,02%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,00%	39 Materias plásticas	0,01%	-0,02%
89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,01%	-0,03%
74 Cobre y sus manufacturas	0,00%	84B Motores	-0,01%	-0,04%
72B Barras y perfiles acero común	0,00%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,07%	-0,04%
85D Alumbrado	0,00%	84D Grúas y aparatos elevación	-0,09%	-0,04%
72A Productos planos acero común	0,00%	85A Motores y generadores eléctricos	0,05%	-0,05%
1 a 5 Productos del reino animal	0,00%	87B Vehículos para transporte mercancías	0,03%	-0,07%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	0,00%	-0,16%
97 XXI Objetos de arte	0,00%	83 Manufacturas metálicas	-5,72%	-0,19%
88 Navegación aérea o espacial	0,00%	85B Transformadores	0,03%	-0,28%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	82 Herramientas y útiles	0,02%	-0,64%
15 Grasas y aceites	0,00%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	0,49%	-0,67%
84A Calderas y turbinas	0,00%	99 No clasificados	0,00%	-134,66%

Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

EAEk Errusian duen kuota handiena arma eta munizioen sektorekoa izan zen 2017an, eta berau izan da baita ere 2012tik 2017ra hazkunde handiena metatu duena. Atzetik datoz automobilak eta trenbideetako ibilgailuak.


Itsasoko nabigazioak eta aireko nabigazioak (azken horrek gutxiago) hazkunde handiak izan dituzte Errusiako inportazioetan aztertu diren 5 urteetan, baina hazkunde horiek ez dira nabari EAEren epe horretako kuotan. Hala ere, automobilen eta trenbideetako ibilgailuen kasuan, Errusiaren inportazioak murriztu egin dira, eta, aldiz, hazi egin dira EAEren esportazioak.

Jarraian grafiko bat dago non laburbiltzen den Euskadik Errusian duen posizionamendua sektoreka, eta hau da bere interpretazioa:

- **Indartsuak:** Sektore hauetan asko handitu dira Errusiako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** Inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** Sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes gutxikoak:** Sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.



7. grafikoa: Euskadiren posizionamendua Errusian sektoreka



16-24 (-22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóviles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barra y perfiles acero común	84D	Grúas y aparatos elevacion	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barra y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		

6.3. Aldebiko inbertsioak

BasqueTrade agentziaren arabera, Errusian euskal enpresen 23 ezarpen daude; ezarpen horietatik 3 produktiboak dira, eta 20 komertzialak. Ezarpenak sektore hauetakoak dira nagusiki: makina-erreminta, automozioa, 4.0 Industria, siderometalurgia, burdinbideak, energia, eskuko tresnak, softwarea, ingeniari-tza, biozientziak, ingurumena eta elektronika.

Bestalde, Bureau Van Dick bulegoaren arabera, Errusiako kapitala duten lau enpresa daude logistika eta aholkularitza sektoreetan.



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

16. taula: Errusiako BPGaren banaketa sektoreka⁴²

BPGren sektore garrantzitsuenak (2018)	% 100
Nekazaritza, basogintza eta arrantza, balio erantsia (BPGaren % -a)	% 3,14
Industria (eraikuntza barne), balio erantsia (BPGaren % -a)	% 32,06
Manufaktura, balio erantsia (BPGaren % -a)	% 12,30
Zerbitzuak, balio erantsia (BPGaren % -a)	% 54,12

Iturria: Munduko Bankua

17. taula: Balio erantsi gordina jarduera ekonomikoka⁴³

Balio erantsi gordina jarduera ekonomikoka (egungo prezioetan, mila milioi errublo)	2018	
BPGa merkatuko prezioetan	103.875,80	% 100
Nekazaritza, basogintza, ehiza, arrantza eta pizsikultura	3.635,65	3,5
Meatzaritza	469,00	12,9
Manufakturak	14.230,98	13,7
Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotuaren hornikuntza	2.804,65	2,7
Ur hornikuntza, hustubideak, ur bilketa eta hondakinak suntsitzea, kutsatzaileak suntsitzeko jarduerak	519,38	0,5
Eraikuntza	6.232,55	6
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu eta motozikleten konponketa	14.854,24	14,3
Hotel eta jatetxe jarduerak	934,88	0,9
Garraioa eta biltegiatzea	7.271,31	7
Informazio eta komunikazio jarduerak	2.493,02	2,4
Finantza eta aseguru arloetako jarduerak	4.258,91	4,1
Higiezin jarduerak	9.556,57	9,2
Administrazio jarduerak eta horiekin lotutako zerbitzu gehigarriak	2.389,14	2,3
Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	4.362,78	4,2
Gizarte eta osasun zerbitzuak	3.531,78	3,4
Administrazio publikoa eta segurtasun militarra; gizarte segurantzia	7.894,56	7,6
Hezkuntza	3.324,03	3,2
Kultura, kirol, aisialdi eta entretenimendu arloetako jarduerak	934,88	0,9
Bestelako zerbitzuen hornikuntza	623,25	0,60
Etxeko jarduerak, etxea lantoki bihurtzen denean; etxe pribatuetan garatzen diren jarduerak kontsumo propioarako ondasun eta zerbitzuak ekoizteko	623,25	0,60

Iturria: Bankiros,


Grafiko honetan 2014, 2017 eta 2018 urteen arteko alderaketa bat egiten da, Errusiako beste iturri nazional batek emandako datuak kontuan hartuta:

⁴² Munduko Bankua (2020): Errusiako Federazioa. <https://data.worldbank.org/country/russian-federation>

⁴³ BANKIROS (2020). Errusiako BPGaren egitura industriaka (2020). <https://bankiros.ru/wiki/term/struktura-vvp-rossii-po-otraslam>



8. grafikoa: Errusiako BPGaren egitura produkzio-kontuen arabera 2014, 2017, 2018 (%)⁴⁴



Iturria: Errusiako Federazioko Gobernuarentzako Análisi Zentroa.

7.2. Merkatuko bolumenak

18. taula: Merkatuko bolumenak (milioi errublo, prezio arruntak).

Kategoria	2017ko produkzioa (fakturazioa) MSP	2018ko produkzioa (fakturazioa) MSP
Energia	20.354.150	23.099.410
Petrolio gordinaren eta gas naturalaren erauzketa	10.318.720	11.994.330
Ikatz eta lignito meatzaritza	1.230.434	1.307.274
Uranio eta torio mineralen meatzaritza	4.449	4.826
Talka-labeetarako produktuak	147.334	157.124
Erregai nuklearraren prozesamendua	309.100	326.139
Petrolioeko produktu birfinduak	8.344.113	9.309.712
Zerbitzuak eta birziklapena	9.548.590	10.368.160
Birziklapena	512.823	575.714
Ur bilketa eta banaketa	378.326	408.967
Gas fabrikazioa eta banaketa	1.536.886	1.669.022
Argindarra	5.458.113	5.937.243
Estoldak eta saneamendua	307.663	328.016
Lurrun eta ur bero hornikuntza	1.354.780	1.449.200
Makineria	2.642.694	2.866.514
Helburu orokorretarako makineria	1.339.244	1.447.867
Errodamenduak, engranajeak eta gidatze sistematarako elementuak	44.583	47.867
Mahaiko tresnak, eskuko tresnak eta hardwarea orokorrean	45.118	48.852
Motorrak eta turbinak, hegazkin, ibilgailu eta ziklomotorretarako direnak izan ezik	161.095	173.251
Labe industrialak eta laborategietarako labeak	28.592	30.369
Ekipo industrialak eta laborategietarako ekipoak	175.419	186.285
Aire girotu industrialeko makinak, paketatzeak eta helburu orokorretarakoak	450.957	489.404
Punpak, konpresoreak, iturriak eta balbulak	323.246	351.213

⁴⁴ Errusiako Federazioaren Gobernuarentzako Análisi Zentroa (2019): Errusiako BPGaren egitura ekoizpen-kontuaren arabera 2014an, 2017an eta 2018an (%). <https://ac.gov.ru/en/home#>



Kategoria	2017ko produkzioa (fakturazioa) MSP	2018ko produkzioa (fakturazioa) MSP
Lurrun sorgailuak	110.234	120.626
Helburu berezietarako makineria	1.303.450	1.418.647
Nekazaritzako eta basogintzako makinak	152.185	162.507
Makina-erreminta	41.757	44.275
Metalurgiarako makinak	57.945	60.879
Eraikuntza, meatzaritza eta harrobietarako makinak	136.040	143.843
Elikagaiak, edariak eta tabakoa prozesatzeko makinak	28.752	30.651
Kautxu, plastiko eta paper industrietarako makinak eta helburu berezietarako makinak	133.678	145.199
Oihalak eta arropak ekoizteko makinak	2.816	2.970
Armak eta munizioak	750.278	828.322
Goi-mailako teknologiko produktuak	2.406.809	2.574.291
Etxetresna elektrikoak	160.183	172.598
Tresna optikoak eta argazkigintzako ekipoak	57.726	61.222
Telebista eta irrati hargailuak, soinu eta bideo grabagailuak	119.749	119.930
Metagailuak, zelula eta bateria primarioak	39.110	42.050
Lanpara elektrikoak eta argiztapen ekipoak	41.754	44.264
Motor elektrikoak, sorgailuak eta transformadoreak	156.253	167.314
Motor eta ibilgailuentzako ekipo elektrikoak	265.654	284.997
Argindarraren banaketa eta kontrolerako gailuak	220.440	240.488
Alanbrea eta kable isolatuak	262.855	280.708
Ordenagailuak eta bulegoko makinak	134.095	142.569
Osagai elektronikoak, balbulak eta hodiak	284.352	304.140
Sakelako telefonoak, irrati transmisoreak eta telebista kamerak	270.256	287.670
Neurtzeko, nabigatzeko eta testak egiteko gailuak	376.923	407.718
Prozesu industrialak kontrolatzeko ekipoak	17.459	18.624
Garraiorako ekipoak	4.231.745	4.541.186
Hegazkinak eta espazio-ontziak	1.482.927	1.596.973
Motordun ibilgailuak eta piezak	1.848.723	1.975.937
Motorrak, bizikletak eta garraiorako beste material batzuk	48.746	52.155
Tren eta tranbientzako lokomotorrak eta material birakariak	376.933	413.730
Ontziak eta itsasontziak	474.417	502.391
Zerbitzu komertzialak	9.355.211	10.105.370

Iturria: Euromonitor

7.3. Negozio-aukerak

Kanpo-merkataritzako kapituluan ikusi da lehiakorrek garela zenbait sektoretan eta Errusiak inportazio handiak egiten dituela sektore horietan, batez ere automozioan, osagaietan eta makina-erremintan.

Makina-erremintari dagokionez, Errusiako Industria eta Merkataritza Ministerioak berretsi egin zuen makineria industriaren garapenerako 2030erako estrategia, zeinak hainbat alderdi sustatuko baititu, besteak beste, hauek: goi-mailako teknologiko ekipoen inportazioa, *know-how* transferentzia, osagai eta ekipo osoen bertako produkzioa eta fabrikazio nazionala sektorearen autonomia lortzeko. Gainera, estrategia horren bidez orobat sustatuko dira robotika industriala (4.0 Industria kontzeptuaren barruan), teknologia gehigarria eta IoT.

Energia berriztagarriak ere potentzial handiko sektorea dira, Errusiako gobernuak eskuartean baitauka Energia Berriztagarrietan Inbertitzeko Plana 2024 (9.200 mill. EUR), zeinak aukerak irekiko baititu batez ere sektore eolikoko zerbitzu eskaintzarentzat.



Negozio-aukera bikaina da, bestalde, azpiegituren eraikuntzarako makineria sektorea. Errepideak zabaltzeko planari esker, Errusiak bide-sari makinak beharko ditu. Osasun zerbitzuetako azpiegiturretan hainbat gabezia daude, horregatik, aukera-sektore egokia izan liteke Errusian zerbitzuak eskaintzeko, batik bat osasun zerbitzuak jatorrian eskaintzeko eta osasun arloko mugikortasunerako (adb. Euskadi).


Enpresa pribatu asko inbertsioak egiten ari dira nekazaritzako industria sektorean. Bestalde, Gobernuak muga-zergak jaisten ari da fabrikazio-lineen edo inportatutako makinaren (baldin eta ez badira fabrikatzen Errusian) kasuan, eta kreditu-ildoak ireki ditu nekazaritzako enpresa txiki eta ertainentzat, landa-eremuetako azpiegituren garapena bultzatzeko.

Merkataritzako oztopoak gorabehera, badaude aukerak kontsumo-ondasunen sektorean eta nekazaritzako elikagaien sektorean, bertako industria ez delako oso lehiakorra. Gauza bera gertatzen da beste sektore batzuetan ere: altzarigintza -errusiarrei gero eta gehiago interesatzen zaizkie Espainian eginiko kalitate handiko eta diseinuzko altzariak etxeetarako, espazio ofizial eta komertzialetarako, enpresetarako eta aisialdi guneetarako-, arropak, kalitatezko ardoak (botilan), gourmet produktuak...

International Trade Center-en arabera, Errusiako nazioarteko merkataritza aztertu ondoren, hauek dira inportatzeko potentziala duten produktuak:

9. grafikoa: Inportatzeko potentziala duten produktuak⁴⁵

⁴⁵ ITC (2020): Inportatzeko potentziala duten produktuak. <https://exportpotential.intracen.org/es/products/tree-map?toMarker=j&market=643&fromMarker=w&exporter=w&whatMarker=k>



Iturria: International Trade Center

Hona hemen BasqueTrade-ren zaintza sistemak identifikatu dituen negozio-aukerekin lotutako hainbat albiste. Aukera hauen eta beste batzuen jarraipena egiteko, jo esteka honetara: <http://basquetrade.spri.eus>

- “Errusiak 3 milioi dolar inbertitu ditu Txina, Uzbekistan eta Kirgizistan elkarrekin lotuko dituen trenbidean” ([Russia business today](#))
- “Skoda eta Sinara enpresek *Joint Venture* bat sortu dute metrorako trenak, tranbiak eta trolebusak eraikitzeko” ([Railway Gazette](#))
- “RDIFek (Russian Direct Investment Fund) hondakinak kudeatzeko 50 milioi dolarreko konplexu berri bat finantzatuko du Kaliningradon” ([Russia business today](#))
- “San Petersburgoko trenbideetan inbertitzeko akordioa” ([Railway Gazette](#))
- “Errusiak Artikoko lau aireportu eguneratuko ditu 2024rako” ([Russia business today](#))
- “Helsinki bala-tren berri bat egingo du Moskura 6 orduan heltzeko” ([The Moscow Times](#))
- “Errusiak ikerketa-estazio berri bat irekiko du Artikoon, energia berriztagarri eta hidrogenoz elikatuko dena.” ([EnergyLive](#))



8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidesunak

Errusiaren kanpo-politika da Errusiak beste herrialde batzuekin duen harremana. Errusiako presidentek zehazten du nolakoa izan behar duen, eta Kanpo-gaien Ministerioak gauzatzen du.

Errusia parte-hartzaile garrantzitsua da nazioarteko harremanetan. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorretako bat izaki, Errusiak, Segurtasun Kontseiluko beste lau kide iraunkorrek batera, erantzukizun handia du nazioarteko bake eta segurtasunari eusteko. Ekonomikoki garatutako estatuen “G-20” taldeko kide da, hori baino lehen “G-8” taldeko kide izan zen (2014az geroztik ez dago talde horren barruan), eta nazioarteko beste antolakunde askotako kide ere bada, hala nola, Europako Kontseilukoa eta ESLAkoa. SESB zaharraren espazioan sortutako antolakundeek (Estatu Independenteen Komunitatea, Eurasiako Batasun Ekonomikoa, Segurtasun Kolektiboaren Ituneko Antolakundea, e.a.) leku berezia dute.⁴⁶

Errusiak eta Bielorrusiak elkarrekin osatzen dute Errusia eta Bielorrusiako Estatu Aliatua.

Aipatzekoa da nazioarteko komunitateak SESBen ondorengo estatu gisa onartu zuela Errusia. Horrek esan nahi du Errusia eta SESB estatu bera direla nazioarteko ikuspegi juridikotik. Horri esker, Errusiak SESBen nazioarteko eskubide guztiak erabiltzen eta betebeharrak guztiak betetzen jarraitzen du, besteak beste, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko eta beste hainbat nazioarteko antolakundetako kide izatea, nazioarteko itunen arabera eskubide eta betebeharrak egikaritzea, ondasunak edukitzea eta zorrak izatea beste Estatu batzuekin. Nazioarteko antolakunde hauetan ere parte hartzen du: APEC, ASEAN (solaskide gisa), BRICS, CICA, BERD, FAO, OIEA, ICC, NDF, MME, e.a.⁴⁷

Esteka honetan dago Errusiak nazioartean eta sektore desberdinetan dituen akordioen zerrenda: <https://globaledge.msu.edu/countries/russia/government>

8.2. Merkataritza-akordioak

Eurasiako Batasun Ekonomikoak merkatu bakar bat osatzen du Errusia, Bielorrusia, Kazakhstan, Kirgizistan eta Armeniako merkatuekin. Merkatu bakar horrek 180 milioi pertsona barne hartzen ditu, eta 6 bilioi dolarretik gorako barne produktu gordina du. Batasunak merkatu-gai eta zerbitzuen zirkulazio librea sustatzen du, eta politika komunak aurreikusten ditu arlo makroekonomikorako, garraiorako, industria eta nekazaritzarako, energia arlorako, kanpo-merkataritzarako eta inbertsioetarako, muga-zergetarako, araudi teknikoetarako, lehiarentzako eta monopolioen aurkako araudietarako. Etorkezinean, baliteke txanpon bakarra sortzea eta integrazio handiagoa lortzea.⁴⁸

Bestalde, Estatu Independenteen Komunitateko Merkataritza Libreko Eremua (CISFTA), izenak berak dioen bezala, merkataritza libreko eremu bat da, herrialde hauek barne hartzen dituenak: Errusia, Ukraina⁴⁹, Bielorrusia, Uzbekistan, Moldavia, Armenia, Kirgizistan, Kazakhstan eta Tajikistan. CISFTAko bost parte-hartzaile (Ukraina, Uzbekistan, Moldavia eta Tajikistan izan ezik) Eurasiako Batasun Ekonomikoko kide dira.⁵⁰

⁴⁶ Real Instituto Elcano (2010): Errusiaren kanpo-politika.

http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/dt33-2010

⁴⁷ GLOBAL EDGE (2020): Russia: Government. <https://globaledge.msu.edu/countries/russia/government>

⁴⁸ EAEU (2020): General Information. <http://www.eaeunion.org/?lang=en#about>

⁴⁹ Errusiak eta Ukrainiak bertan behera utzi dituzte elkarrekiko lehentasun komertzialak.

⁵⁰ European Parliament (2017): Eurasian Economic Union: The rocky road to integration.

[https://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_BRI\(2017\)599432](https://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_BRI(2017)599432)



Hona hemen Eurasiako Batasun Ekonomikoaren eta hirugarren herrialdeen arteko akordioak:

- Merkataritza Libreko Akordioa Vietnamen eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Merkataritza Libreko Akordioa Iranen eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Merkataritza Libreko Akordioa Eurasiako Batasunaren eta Singapurren artean.
- Merkataritza Libreko Akordioa Serbiaren eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Lankidetzakomertzial eta ekonomikorako akordioa Txinaren eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.

Negoziatzen ari direnak:

- Merkataritza Libreko Akordioa Israelen eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Merkataritza Libreko Akordioa Egiptoren eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Merkataritza Libreko Akordioa Indiaren eta Eurasiako Batasun Ekonomikoaren artean.
- Zerbitzu eta Inbertsioen Merkataritzari buruzko Akordioa Errusiako Federazioaren eta Turkiako Errepublikaren artean.
- Zerbitzu eta Inbertsioen Merkataritza Libreari buruzko Akordioa Errusiako Federazioaren eta Koreako Errepublikaren artean.



9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

19. taula: COFACEren balorazioa ⁵¹

Herraldea	HERRI ALDEA REN ARRISKUA	Negozio etarako giroa	OHARRAK
ERRUSIAKO FEDERAZIOA	B	B	<p>-INDAR-GUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Baliabide natural oparoak (petrolio, gasa eta metalak) Dibertsifikatzeko ahaleginak Errubloaren flotazioa 2014ko azaroaz geroztik Merkatu handia eta lan-esku kualifikatua Egonkortasun makroekonomikoa: kontu publiko eta kanpo-kontu indartsuak, kanpoko arriskuekiko erresistentzia bermatzen dutenak Bankuen sektorea garbitzeko ahaleginak (2019ko maiatzean 469 erakunde zeuden, eta 2013an, berriz, 900 inguru) Digitalizatorako eta berrikuntzarako gaitasuna <p>-AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Hidrokarburoen prezioekiko menpekotasuna Demografikoki murriztu egin da Ez dauka akordio komertzialik inguruko herrialdeekin dituen gain Atzerriko teknologiarekiko menpekotasuna Azpiegitura ahula du eta inbertsio ezak larriagotzen du arazo hori Ekarpen handia egiten zaio gizarte segurantzari (soldaten % 30) eta horrek ekonomia informala hauspotzen du AEBek eta Europak ezarritako zigorrak oztopo dira lurraldez kanpoko sektorearen garapen eta berrikuntzarako Baditu ahuluneak erakundeetan eta gobernuan (kaudimen gabeziaren tratamendua, jabetza eskubideak, ustelkeria)

Ohar garrantzitsuenak (COVID-19aren krisiaren aurrekoak):

Inbertsio publikoak baldintzatzen du azelerazioa.

Errusiak lortu du 2015/2016ko atzeralditik suspertzea. Egia da hazkundeak txikia dirudiela hidrokarburoen prezioaren gorakadarekin alderatuta, baina hazkunde horrek herrialdearen gaitasun ekonomikoa islatzen du, eta orobat erakusten du agintariak bereizi egin nahi dituztela hazkunde eta petrolioak sortutako aberastasuna, zeina aldaketa handiak jasaten ari baita. Helburu horrekin, eta mendebaldeko herrialdeek ezarritako zigorraren testuinguruan, Errusiak arau fiskal bat ezarri zuen 2018an hidrokarburoekin loturarik ez duen defizita murrizteko eta ekonomia dibertsifikatzeko. Hori dela eta, garrantzi handia eman zaio inbertsioari. Halere, oraindik ere etxeetako kontsumoa da -eta izango da- hazkunderi ekarpen handiena egiten dion elementua (BPGaren % 50), eta adierazle hori ekonomiarekin batera haziko da. Zentzu horretan, onuragarri izango dira lan-merkatuaren baldintza zorrotzak, produktibitatea hobetzeko ahaleginak eta soldata publikoen (enplegu guztien % 28) eta pentsioen igoerak. Kredituaren hazkunde motelagoa izango da, baina maila erosoan mantenduko da, eta banku zentralak are gehiago murriztu lezake bere interes-tasa gakoa (% 6,25ekoa 2019ko abenduan), bere helburutik hurbil legokeen inflazioarekin (% 4). Espero da inbertsioak (BPGaren % 21) ia kopuru bereko

⁵¹ COFACE (2020): Russian Federation. <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Russian-Federation>



ekarpena egingo diola hazkundeari, inbertsioa bera ere asko haziko delako, bai behintzat Putin presidenteak 2018an aurkeztutako 13 proiektu nazionalak martxan jartzen badira. Proiektu horiek (errepideak, hezkuntza eta osasuna) helburutzat dute hazkunde potentziala handitzea eta pobrezia murriztea (biztanleriaren % 14 biziraupen-mailaren azpitik bizi da, eta % 65ek laguntza jasotzen dute). Errusiako Aberastasun Funts Subiranoak proiektuen zati bat finantza lezake; hala, ekimen horien hiru laurdenak publikoak izango dira. Halere, ez da inpaktu handiegirik espero, proiektu horiek lehendik dauden ekimenei gehituko zaizkielako, eta gastu publikoak eragin biderkatzaile txikia duelako.⁵²

Gainera, dibertsifikazio ekonomikoa sustatzeko neurriak gorabehera, ez dirudi inbertsio pribatua handia izango denik, mugatuta dagoelako sektore publikoaren tamainagatik (32.500 enpresa dira, eta balio erantsiaren % 38 hartzen dute). Errusiak hainbat zigorri egin behar die aurre, besteak beste nazioarteko finantzaketa eskuratzeko murrizketei, eta enpresentzako barne-kredituak oso motela eta garestia izaten jarraitzen du. Zerealen esportazioentzat onuragarria izan zen 2019ko uzta ona, baina petrolio esportazioek prezio finkoak dauzkate, eta LPEEren akordioak mugak jartzen dizkio ekoizpenari. Aldiz, beste esportazio batzuek (mineralak, zura, oinarritzko produktu industrialak eta bitarteko produktu industrialak, garraioko ekipoak) eskaera globalaren beherakada jasango dute. Aldi berean, inportazioak azkarrago haziko dira, barne-eskaeraren erritmo berean, nahiz eta pizgarriak sortu diren bertako ordezeko produktuak erabiltzeko eta bertako edukiak handitzeko.

Hidrokarburoek elikatutako soberakinak

2019/2024 urteetarako (dagoeneko ez da aurrekontu orekatua), oinarritzat harturik petrolioak 40 USDeko prezioa izango duela (2017ko prezioa, Estatu Batuetako inflazioaren arabera egokitua). Uraletako petrolio garestiago saldu da, eta horrek sortu dituen diru-sarrera publiko gehigarriak atzerriko aktibo gisa gordeko dira egonkortze-funts nazionalan. Baina nola funts horrek BPGaren % 7a gainditu duen, diru hori inbertsio publikoetarako erabili ahal izango da. Arau hori onartzearekin batera, kontu fiskalak bateratu ziren, eta horri esker, murriztu egin zen petrolio gordinaren prezioa (2013an 110 USDekoa zena 43 USDera jaitsi zen 2018an), alegia, aurrekontu primario orekatua lortzeko behar zena; eta petrolioarekin loturarik ez duen defizita % 9,4tik % 7ra jaitsi zen. Petrolioarekin zerikusirik ez duten diru-sarrerak BPGaren % 26koak dira, eta gainerakoak % 8koak. Diru-sarrera horiek gehienbat erabiltzen dira gastu korrontekak finantzatzeko, dirulaguntzak barne (BPGaren % 7). Zor publikoa nahiko baxua da, Aberastasun Funts Subiranora jo behar izan zelako atzeraldiaren sasoian. Kanpoko parte-hartzeak BPGaren % 3 suposatzen du.⁵³

Murrizten bada ere, kontu korronteko superabitak handia izaten jarraituko du 2020an. Murrizketa gorabehera, hidrokarburoen esportazioekin (esportazio guztien % 54) lotutako superabit komertziala (BPGaren % 11 2019an) handia izango da, eta aise konpentsatuko du zerbitzu eta diru-sarreraren defizita (petrolio eta gasarekin lotutako ingeniari-gastuak, atzerriko bidaiatzen duten errusiarrak, atzerriko enpresen dibidenduak, atzerriko langileen transferentziak). Hidrokarburoak alde batera utzita, saldo komertziala eta kontu korronteen saldoa negatiboak izango dira, BPGaren % -3 eta % -8koak. Zigorrek jarri zirenetik ahalegin handia egin bada ere, barne-produktuak inportazioekin ordezkatzeko politikak ez ditu lortu bere helburuak, nekazaritza sektorean izan ezik. Finantza-kontua negatibo bihurtu da (2019an BPGaren % -1ekoa izan zen). Errusiako sektore pribatuak gainditu du geldialdia, baina atzerriko inbertsioaren fluxu garbia negatiboa da. Kanpo-zor pribatua BPGaren % 24ra murriztu da; dibisen erreserba gero eta handiagoak 18 hilabeteko inportazioen bolumenera iritsi dira eta epe laburreko zorra baino bost aldiz handiagoak dira.⁵⁴

⁵² *Ibid.*

⁵³ *Ibid.*

⁵⁴ *Ibid.*



10. ONDORIOA

Errusiako merkatua merkatu gorakorra da, eta halakoek duten abantaila nagusia da merkatu tradizionalak baino hazkunde potentzial handiagoa dutela, zentzu askotan. Gainera, ekonomia osasuntsua du, ez dago oso zorpetuta, eta horri esker, oreka makroekonomikoa berreskura dezake nazioarteko zigorren gainetik, munduko dibisa erreserba handienetakoa eta zor publiko baxuenetakoa duelako.

Atzerriko inbertsioentzako giroa asko hobetu da azken urteotan. Izan ere, Errusiak urrats garrantzitsuak eman ditu Merkataritzaren Munduko Erakundearen (MME) onartua izateko. Era berean, lan-esku kualifikatua du, gaitasun handikoa, eta horrek erakargarriago egiten du atzerriko inbertitzaileen begietan.

Aukerei dagokienez, aipatzekoa da Errusiak lau motatan sailkatutako 28 eremu ekonomiko berezi eskaintzen dituela Errusian inbertitu eta enpresa bat ezarri nahi duten atzerriko inbertitzaileentzat. Hauek dira Errusiako 28 gune ekonomiko bereziak (ZEE):

- Industria eta ekoizpen arloko sei gune,
- Turismo eta aisialdi arloko 14 gune,
- Teknologia eta berrikuntza arloko bost gune,
- Hiru portu gune.

Errusiako gune ekonomiko bereziak herrialdeko eskualde garatuenetan daude, eta goi-mailako teknologia eta ikerketa arloetako konpainia asko ezartzen dira gune horietan. Nazioarteko enpresa askok dagoeneko badituzte filialak gune horietan, eta langile asko eraman dituzte.

Errusiako merkatuak Euskadirentzat duen garrantziari dagokionez, funtsezkoa da berriro ekartzea hona kanpo-merkataritzaren kapituluan aztertu duguna: gu oso lehiakorrek gara zenbait sektoretan, eta Errusiak sektore horien inportazio asko egiten ditu (batez ere, automozioa, osagaiak eta makina-erreminta). Aipagarriak dira muga-zergen partida hauek: 40, 73, 84, 87 eta 85. Garrantzitsuak dira bi faktore batzen direlako: Euskadi lehiakorra da sektore horietan, eta Errusiak inportazio-premia handia du. Oro har, Euskadiko enpresek sektore hauetan egiten dituzte ezarpen gehien: makina-erreminta, automozioa, 4.0 Industria, siderometalurgia, trenbideak, energia, eskuko tresnak, softwarea, ingeniariak, biozientziak, ingurumena eta elektronika.

Hala, adibide bezala 4.0 Industria hartuz, aipatzekoa da Errusiari iritsi zaiola hazkunde ekonomiko mota berri bat abian jartzeko garaia. 4.0 Industriak ematen dituen aukerak aprobetxatzen baditu, garapenaren hurrengo fasera pasa ahal izango da, eta bere lidergoa erakutsi ahal izango du mundu aldakor batean. Hala, Euskadik arlo horretan egin dituen aurrerapenak aprobetxatze aldera, lankidetzak sor litezke Errusiako enpresa edo erakundeekin eta negozio-aukerak ahalbidetu.

Era berean, funtsezkoa da energiaren sektorea. Ekonomia aurreratuak buru-belarri murgildu dira garapen jasangarrirako proiektuetan, eta klima aldaketak berekin dakartzan erronkei aurre egiteko prozesuan. Horrek berekin ekarri du industrien energia-eraginkortasun arloko politikak indartzea eta energia berriztagarriek balantze energetikoan duten parte-hartzea handitzea. Joera globalei hurbiletik jarraitu nahi badie, Errusiak mundu mailako ikuspegiak txertatu behar ditu bere industria energetikoan. 2020an kalkulatzen da energia berriztagarriek Errusiako argindar-hornikuntzan duten parte-hartzea % 1 ingurukoa baino ez dela, baina espero da 2035erako % 5eraino izatea.

Errusia herrialde handia da eta premia du era guztietako azpiegiturak modernizatzeko (burdinbideak, errepideak, e.a.). Hori ere sarbide egokia izan liteke gure enpresentzat. Energia sektorearekin gertatzen den bezala, azpiegituren arloa ere aukera ona da zenbait alderdi zehatzetan multinazional handiek eskaintzen dituztenak baino produktu edo zerbitzu hobeak eskaintzeko gai diren enpresa espezializatuentzat.



Kuotei dagokienez, EAEk Errusian duen kuota handiena arma eta munizioen sektorekoa izan zen 2017an, eta berau izan da baita ere 2012tik 2017ra hazkunde handiena metatu duena. Atzetik datoz automobilak eta trenbideetako ibilgailuak.

Azkenik, ezinbestean aipatu behar da pandemiak eragin duen krisia. 2020an, koronabirusaren krisiarekin batera, petrolioaren prezioak gorabehera handiak izan ditu Errusian, ekainaren hasieran berriz igo zen arte (upeleko 35 – 40 \$). Anton Siluanov Errusiako finantza ministroak adierazi du Inbertsio Funts Nazionalak (NWF) sei urtez elikatu dezakeela petrolioaren aurrekontua, baina horrek berekin dakartza ekonomiaren beste alderdi batzuen etengabeko gastuak eta diru-sarrerak.

Errusiaren BPGa % 1,9 murriztu da urtearen lehen lau hilabeteetan, eta Banku Zentralak aurreikusi du murrizketa % 6koa izango dela guztira 2020an. Neurri ekonomikoak apalak izan dira, hala nola, hurrak dituzten familientzako laguntzak, langabeziarentzako laguntza handiagoak, opor fiskalak, alokairuak eta kredituak atzeratzeko aukera, eta ordainketa zuzenen bat edo beste.

Zenbait adituk uste dute pizgarri konbinatua Errusiako BPGaren % 4 baino pixka bat gutxiago dela, baina Ekonomia Ministerioak dio hurbilago dagoela % 10etik, maileguen bermeak eta zerga salbuespenak ere kontuan hartu dituelako. Dena den, pizgarri konbinatu hori Errusiako ekonomiarentzat “sistemikoki garrantzitsuak” diren enpresa handientzat da gehienbat. ETEak, ekonomiaren bosten bat osatzen dutenak, askoz egoera zailagoan egon dira.

Gobernuak presio handiak jaso ditu “arau fiskala” aldatzeko eta, horrela, aberastasun funts nazionaleko erreserbak liberatzeko. Aipagarria da laugarren laguntza ekonomiko sorta bat ere diseinatu dela, zeinaren bidez 7,3 bilioi errublo (106 mila milioi \$) inbertituko baitira datozen bi urteetan gizarte laguntzak emateko, azpiegiturak hobetzeko eta eskualdeetako aurrekontuak nahiz ETEak babesteko. Horrezaz gain, ikuskaritzak urte amaierara arte atzeratuko dira eta aldatetak egingo dira kiebra aitortzeko legeetan.

Krisi hau aukera ona izan liteke Errusiarentzat erreformak egiten hasteko, adibidez, hidrokarburoekiko duen menpekotasuna murrizteko edota deszentralizazio politikoa eta liberalizazio ekonomikoa sustatzeko. Aldaketa horiekin batera erreformak egingo balira politika judizialean eta kanpo-politikan, posible litzateke negozioak egiteko kostuak murriztea eta inbertsioa sustatzea. Bien bitartean, Errusiako erreserba handiak dira nazioarteko inbertsioentzako elementu erakargarriena.



11. ERREFERENTZIAK

- MUNDUKO BANKUA (2020): Errusiako Federazioa. <https://data.worldbank.org/country/russian-federation>
- BANKIROS (2020). Errusiako BPGaren egitura industrialia (2020). <https://bankiros.ru/wiki/term/struktura-vvp-rossii-po-otraslam>
- BASQUE TRADE & INVESTMENT (2019): Nazioarteko merkataritzari eta euskal esportazioen posizionamenduari buruzko txostena
- ERRUSIAKO FEDERAZIOAREN GOBERNURAKO ANALISI ZENTROA (2019): Errusiako BPGaren egitura ekoizpen-kontuaren arabera 2014an, 2017an eta 2018an (%). <https://ac.gov.ru/en/home#>
- CIA (2020): The World Factbook: <https://www.cia.gov/library/publications/the-world-factbook/>
- CIVEX (2020): Errusiara esportatzen duten enpresak. https://www.industria.ejgv.euskadi.eus/x76aAppWar/buscador_avanzado/submit
- COFACE (2020): Russian Federation. <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Russian-Federation>
- COMTRADE DATABASE (2020): Rusia: imports and exports. <https://comtrade.un.org/data/>
- DATACOMEX (2020): Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak <http://datacomex.comercio.es/>
- EAEU (2020): General Information. <http://www.eaeunion.org/?lang=en#about>
- EUROPAPRESS (2020). Auzitegi Konstituzionalak erreforma konstituzional bat onartu du Putinek agintean jarraitu dezan 2024tik aurrera. <https://www.europapress.es/internacional/noticia-constitucional-aprueba-reforma-constitucional-permitira-putin-siga-poder-despues-2024-20200316160733.html>
- EUROPEAN PARLIAMENT THINK TANK (2017): Eurasian Economic Union: The rocky road to integration. [https://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_BRI\(2017\)599432](https://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_BRI(2017)599432)
- EUSTAT (2020): Kanpo-merkataritzaren Datu-basea <https://www.eustat.eus>
- EUSTAT (2020): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomi Erkidegotik eginiko esportazioen rankinga herrialdeka. 2019. [https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking de las exportaciones de la CA de Euskadi por paises p/tbl000572_2_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de las exportaciones de la CA de Euskadi por paises p/tbl000572_2_c.html)
- FMI (2019). World Economic and Financial Surveys. World Economic Outlook Database. <https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2019/01/weodata/index.aspx>
- GLOBAL EDGE (2020): Russia: Government. <https://globaledge.msu.edu/countries/russia/government>
- ICEX (2019). Txosten ekonomiko eta komertziala. Errusia.
- ICEX (2020): Errusia. Marko politikoa. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=RU>
- ITC (2020): Inportatzeko potentziala duten produktuak. <https://exportpotential.intracen.org/es/products/tree-map?toMarker=i&market=643&fromMarker=w&exporter=w&whatMarker=k>
- ERRUSIAKO FEDERAZIOKO EKONOMI GARAPEN MINISTERIOA. (2020). <https://economy.gov.ru/>
- REAL INSTITUTO ELCANO (2010): Errusiaren kanpo-politika. http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/
- SANTANDER TRADE (2020): Errusiako kanpo-merkataritzaren zifrak. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/rusia/cifras-comercio-exterior?accepter_cookies=oui
- SANTANDER TRADE (2020): Errusia, atzerriko inbertsioa. <https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/rusia/inversion-extranjera>
- SANTANDER TRADE (2020). Errusia: politika eta ekonomia. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/rusia/politica-y-economia?accepter_cookies=oui
- STOP CORONAVIRUS (2020) Datuak denbora errealean. <https://стопкоронавирус.рф>
- THE DIPLOMAT (2020): Covid 19 A reckoning for Russia's Asian energy aims. <https://thediplomat.com/2020/05/covid-19-a-reckoning-for-russias-asian-energy-aims/>
- UNCTAD (2019): World Investment Report. https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf
- VEDOMOSTI (2020) Munduko ekonomiaren susperraldia azkarra izango da eta oso desberdina herrialde batzuetatik besteetara. <https://www.vedomosti.ru/economics/articles/2020/05/13/830185-vosstanovlenie-ekonomiki>
- WTO (2020): Database. <https://data.wto.org/>

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.

